

Prentsa oharra

**Euskararen Erakunde Publikoa eta Eusko Jaurlaritzaren
arteko lankidetza kari, 2020an euskararen alorrean diharduten
eragileen sustatzeko hartu erabakiak**

2020ko lankidetzarako fondoa
(Eragile jakinak hitzarmenez lotzea eta hizkuntza jarduera Proiektu Deialdia)

Baiona - 2020/07/03

I. Lankidetza esparrua

Euskararen Erakunde Publikoak eta Eusko Jaurlaritzak hizkuntza politika arloan partaidetza bat eratu dute 2007tik hona, 2007ko otsailaren 7an formalizatu zen lehen hitzarmen-markoaren bidez. Euskararen aldeko hizkuntza politikari buruzko mugaz gaindiko lehen lankidetza horren jarraian, eta 2007-2010 eta 2011-2016 epealdietarako bi partaideek ebaluazio baikorra egin ondoan, Euskararen Erakunde Publikoak eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, bi erakundeen arteko lankidetza sendotuz eta definituz, 2017-2022 epealdirako hitzarmen-marko berri bat izenpetu zuten iaz, 2017ko martxoaren 29an.

Hitzarmen-marko hori, urtero eranskin bidez deklinatzen da, urteko lana eta Iparraldeko eragile pribatuei zuzentzen zaien diruztapen era zehaztuz, bi instituzioek elkarrekin elikatzen eta osatzen duten lankidetzarako fondoaren bidez. Aurten ere beraz, EEPk eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eragile pribatuek eramandako euskararen erabilpena eta transmisioa sustatzen dituzten proiektuak elkarrekin diruz laguntzea erabaki dute. Horretarako, 2020an, lankidetzarako fondoa berriz eratu eta egonkortu da, 1.930.000 € ekarriaz orotara (ikus, II. puntua), bi partaideen ekarpenez.

Sustatutako arlo guzietan eta aurreko urteetan emandako ekintzen ildoari jarraikiz, Euskararen Erakunde Publikoak eta Eusko Jaurlaritzak aurten ere lehentasunezko sostengu ekonomiko eta teknikoa adierazi nahi izan diete hizkuntza politikaren egituratzaile diren eragileei bai eta euskarazko eskaintza iraunkorra egituratu dutenei ere, euskara transmititzeko, ikasteko, praktikatzeko eta hedatzeko molde eraginkorren eta egonkorren lan egiten baitute, baina proiektu berriak ahantzi gabe, Hizkuntza jarduera proiektu deialdiaren bidez lagundu direnak, euskararen erabilera eta promozio dinamika berriak sustatzeko funtsezko deialdia baita.

Iparraldeko hizkuntza jarduerako eragile guztiei eragiten dien osasun-kirsi testuinguru berezi honetan kokatzen da aurten Euskararen Erakunde Publikoaren eta Eusko Jaurlaritzak ekarri sustapena. Krisi honen erantzun gisa, EEPk urtero sustengatzen dituen eragileak ahalik eta hobekien laguntzeko helburuarekin neurri bereziak plantan eman ditu: Estatuak eta kolektibitateek plantan ezarri laguntza-dispositiboen aurkezteko gida bat eginez, dispositibo horien bilakaera zainduz etengabe, gida eguneratuz eta azkenik eragileak lagunduz laguntza dispositibo horien mobilizatzen. Horrez gain, hizkuntza jarduerako eragile identifikatu guztiei galdetegi bat igorri zaie, osasun krisiak beren jardueran eta egoera ekonomikoan epe laburrean edo etorkizunean izanen dituen eraginak neurtzeko helburuarekin. Inkesta horren bidez bildu lehen emaitzek, krisi honek datozen hilabeteetan hizkuntza-jarduera osoan izanen dituen ondorioen analisia elikatuko dute, eta behar izanez gero, kasuan kasuko erantzunak aztertzea ahalbidetuko. Azkenik, testuinguru honetan du ere EEPren bulegoak baieztatu maiatzaren hasieran, eragile nagusien finantza-segurtasuna laguntzeko helburuarekin 2020ko %75eko lehen zatiaren ordainketa aitzinatzea, lankidetzarako fondo komuna kari 2019an ardietsi dirulaguntzaren kopurua oinarritzat hartuz.

II. Lankidetzarako fondoa

2020. urteko, Euskararen Erakunde Publikoak eta Eusko Jaurlaritzak eragile pribatuentzat osatu **lankidetzarako fondoa 1.930.000 €koa da** (2019ko hein berekoak), bi partaideen ekarpenez:

- Euskararen Erakunde Publikoak: **1.530.000 €**,
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak: **400.000 €**.

Lankidetzarako fondo hori bi dirutza multzotan banatua da:

- **1.801.500 €**-ko dirutza multzoa (+226.500 € 2019 urteari konparatuz): Euskararen Erakunde Publikoa eta Eusko Jaurlaritzaren arteko sustapen-lerroekin bete betean datozela ikusita, Ipar Euskal Herriko 15 eragile jakin, 2020rako balio duen **hitzarmenean** oinarriturik diruztatzen dira.
- **128.500 €**-ko dirutza multzoa (-226.500 € 2019 urteari konparatuz): Ipar Euskal Herriko beste hainbat eragile pribaturi zuzenduko zaio **hizkuntza jarduera Proiektu Deialdiaren** bidez. Orohar, beste eragile pribatuen diruztatzeko.

Eragile jakinei zuzendutako lehen finantza-multzoari dagokionez, 9 eragile identifikatu historikoez gain, EEPko Biltzar Nagusiak erabaki du joan den martxoaren 26an orain arte proiektu deialdiaren bidez lagunduak ziren 6 eragile, eragile identifikatu gisa laguntzea. Aldaketa horrek adierazten du eragile horiek egituratu duten eskaintza iraunkorra dela eta EEPren proiektu estrategikoaren helburuekin bat egiten dutela. Eragile identifikatu gisa kontsideratuak diren eragileak dira, euskaraz ari diren 5 hedabide (Aldudarrak Bideo, Kanaldude telebista ekoizten duen kooperatifa, Herria astekaria, Iparraldeko hitza astekaria ekoizten duen Euskal Komunikabideak enpresa, Kazeta.eus web egunkaria ekoizten duen Iparla Baigura komunikazioa eta radiokultura.eus web irratia zabaltzen duen Errobi Promotions elkarte) eta UEU, Iparraldean Udako Euskal Unibertsitateak antolatzen dituen elkarte.

III. Diru-laguntza eskaeren trataera

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako eta Euskararen Erakunde Publikoko zerbitzuek, eragile pribatuek (dela elkarte, dela enpresa) helarazi eskaera guziak banan-bana aztertu dituzte, aitzinetik finkatu ziren eta eragileei azaldu zitzaizkien 4 **irizpide nagusien** arabera:

- Proiektuaren kalitatea (egingarritasun teknikoa eta finantzarioa, helburu eta modalitateen koherentzia ;Proiektu estrategikoaren printzipio eta lehentasunekin, proiektuaren eredugarritasuna)
- Proiektuaren eragina euskararen transmisioa edota erabileraren garapen iraunkorrean
- Aurreikusitako proiektuaren ebaluazioa proposatutako helburu eta neurketa-adierazleen arabera (gauzatze-adierazleak, emaitza-adierazleak, eragin-adierazleak)
- Proiektu eramailearen ibilbidea, haren jardueraren ezagutza

IV. Esleipen erabakiak

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Euskararen Erakunde Publikoaren Biltzar Nagusiak, burutu eztabaida eta azterketa xehekatuen ondotik, jarraian zehaztutako erabakiak hartu dituzte:

IV.1. Beren jarduera linguistikoaren sustatzeko xedez, hitzarmenez lotutako eragile jakinak diruz laguntzea (1.801.500 €)

→ **496.000 €** emanen dira **euskarazko irakaskuntzan** lanean diharduten eragileen sustatzeko, horietan bereizi behar baitira honakoak:

- **Seaska federazioa** (Ikastolen federazioa: lehen mailan 32 eskola, 2. mailan 4 kolegio eta lizeo polibalente bat, orotara 4000 ikasle eskolatzen ditu ama-eskolatik lizeoara arte): **405.000 €** esleituak (= 2019) federazioa sostengatzeko euskararen erabilpena eta transmisio laguntza-ekintzetan (besteak beste eskolatik kanpo euskararen erabilpena sustatzeko helburua duten jarduerak, komunikazioa eta sentsibilizazioa, irakasleen hasierako eta etengabeko formakuntza, laguntza pedagogikoa, hezitzaileen eta irakasleen kontratazioa eta kudeaketa...).
- Irakaskuntza elebiduneko buraso elkarteak, sare publiko zein pribatuan euskarazko irakaskuntza sustatzeko:
 - **Ikas-Bi** (sare publikoko irakaskuntza elebiduneko buraso elkarteak): **40.000 €ko** esleipena (= 2019) eragileak burutzen dituen irakaskuntza elebidunaren sustapen lanen laguntzeko, 2015an finkatu hitzarmen-markoarekin koherentzian, bertan Ikas Bi eta EEPren arteko partaidetza modalitateak zehaztuak baitira, Ikas Bi elkarteak irakaskuntza publikoan irakaskuntza elebidunaren sustapen eta jarraipen lanak bideratzeko, EEPn bilduak diren botere publikoek eraman politika publikoaren osagarri gisa: irekitze eta esperimendatzeko proiektuei laguntza, euskararen erabilera eta irakaskuntza elebidunaren alde burasoak laguntzea, familiei informazioa eta sentsibilizazioa, eskola jarraipena etab.
 - **Biga Bai** (sare publikoko irakaskuntza elebiduneko buraso elkarteak): **23.000 €ko** esleipena (= 2019), Biga Bai elkarteak sare publikoko eskola eta ikastetxeetan burutzen dituen irakaskuntza elebidunaren sustapen eta jarraipen lanak laguntzeko, EEPn bilduak diren botere publikoek daramaten politikaren osagarri gisa: irakaskuntza elebidunaren sustapena (burasoei informazioa eta komunikazioa...), irakaskuntza elebidunaren eskaintzaren garapena eta egituratze kualitatibo lanetan parte hartzea (irekitze eta esperimendatzeko proiektuak, eskola jarraipena), irakaskuntza elebidunaren defentsan burasoen ordezkatzeko eta euskararen erabilpena sustatzen duten proiektuen muntatzeko talde pedagogikoen akuilatzea.
 - **Euskal Haziak** (sare pribatu giristinoan irakaskuntza elebiduneko buraso eta irakasle elkarteak): **28.000 €ko** esleipena (= 2019), irakaskuntza pribatu katolikoan irakaskuntza elebidunaren sustapenerako eragileak eramaten duen proiektua laguntzeko, Irakaskuntza Katolikoaren Elizbarrutiko Zuzendaritzarekin (IKEZ/ DDEC) lotua: irakaskuntza elebidunaren eskaintzaren garapenaren eta egituratze kualitatibo lanetan EEP eta IKEZekin batean parte hartzea, irakaskuntza elebidunaren sustapenerako ekintzak (ate idekien antolaketa, komunikazioa), euskararen erabilera sustatzen duten ekintzak (antzerki astea ikastetxeen artean, literatura lehiaketa, ateraldiak eta gertakariak...).

→ **520.000 € helduen irakaskuntzarako:**

- **AEK** (helduei zuzendutako euskararen irakaskuntzarako formakuntza zentro federazioa): **520.000 €**-ko esleipena (= 2019), AEK-k burutu helduei zuzendutako norbanakoaren formakuntza alorrean diren irakaskuntza jardueren diruz hobeki laguntzeko: lurralde guzian hedatuak diren 16 gau eskolei laguntza eta aholkularitza tekniko eta pedagogikoa (formatzaileen kontratazioa eta kudeaketa, formatzaileen formakuntza, didaktika, ikasleen jarraipena...), ikastaldi trinkoen antolaketa, sentsibilizazio kanpainak.

→ **537.500 €** emanen dira **7 hedabideen sustatzeko** :

- **Euskal Irratiak** (euskaraz ari diren tokiko 5 irrati federazioa): **310.000 €**ko esleipena (= 2019) izan tokiko edo programazio amankomunaren ekoizpena laguntzeko, irratiaren sarearen sendotze eta egituraketaren sustengatzeko (sarearen antolaketari buruzko hausnarketa, batez ere EEPekin sarearen egituraketarako aukerak aztertze eta engaiatu lanaren bidez, ildo editoriala eta programazioari buruzko lana, Donapaleuko irrati berriaren sendotzea...) eta Euskal Irratiaren sareak abiatu irrati guzien arteko baliabide eta zerbitzuen mutualizazio elkarlana sustatzen jarraitzeko.
- **Euskal Hedabideak** (Euskal Irratiak, Aldudarrak Bideo, Ipar Euskal Herriko Hitza, Iparla Baigura komunikazioa eta Herria, osoki euskaraz ari diren hedabideak biltzen dituen elkarteak): **8.000 €**-ko esleipena (2019an baino 3000 € gehiago) Euskal Hedabideak proiektu kolektiboaren egituraketa laguntzen segitzeko. Aitzineko urteetan emandako laguntzaren segidan (publizitate-konpainia baten esperimentazioa, mutualizazioari buruzko lan-saio kolektiboaren antolatzea, emankizun amankomun baten proiektua, 5 komunikabideetako gaur egungo komunikazio digitalaren egoera), duela 3 urte euskal komunikabideetako profesionalentzat elkarteak antolatzen duen urteroko mintegiaren sakontzea; bestetik, hainbat urtetarako ekintza-plan baten egituraketa, hornitzaile aditu batek lagundurik, eta, azkenik, publizitate-konpainiaren tresnen garatzea (gunea berriz diseinatzea eta publizitatea saltzeko kudeaketa-softwarea garatzea) bideratuko du dirulaguntzak.
- **Aldudarrak bideo: 80.000 €** publiko guzientzako programak (erreportajeak, aldizkariak, emankizunak, kaptazioak) ekoizteko eta zabaltzeko, baita Eskualdearekin finkatu HBHetan ekoiztuak ere, Kanalduderen ikuspena banaketa-sareetan laguntzeko eta difusio-kanal berrien esperimentatzea jarraitzeko (internet hornitzaileak, lurreko telebista digitala, ...).
- **Herria: 48.500 €** (= 2019) harpidetza bitartez edo kioskoetan banadaturak den euskarazko astekari bat ekoizteko eta argitaratzeko.
- **Euskal Komunikabideak: 28.000 €** (= 2019) Iparraldeko Hitza, astekari berezitua ekoizteko eta argitaratzeko. Astekaria Berria egunkariaren harpidedunei banatzen zaie, kioskoan zuzenean edota harpidetza berezi baten bidez.
- **Iparla Baigura Komunikazioa (kazeta.eus): 28.000 €** (= 2019) Kazeta.eus webgunerako euskarazko edukiak sortzeko.
- **Errobi promotions: 35.000 €** (= 2019) Radiokulturan zabaldutako euskarazko irrati saioen ekoizteko. Ekoizpenak interneten bidez hedatuak dira, hertziar bidez zabaltzen duten beste irratiarekin burututako partaidetzen bitartez (berezi Euskal Irratiak sareko 5 irrati bitartez) edo programa-bankuetan hedatuak.

→ **244.000 €** emanen dira azken urte hauetan garapen handia izan duten **aisialdi** alorreko jardueren sustatzeko:

- **Bertsularien Lagunak** (bertsolaritzaren irakaskuntza eta sustapenerako elkartea): **65.000 €**-ko esleipena (= 2019) lurralde guzian bertso eskolek eramaten duten bertsolaritzaren irakaskuntzaren sustengatzeko (eskolaz kanpoko jarduerak, bertso saioak eta txapelketa izan ezik), orotara 200 ikasle inguruk parte hartzen dute 29 taldetan banaturik.
- **Uda Leku** (euskarazko aisialdi eta egonaldi zentroak): **179.000 €**-ko esleipena (= 2019), eragileak antolatu euskarazko aisialdi jarduerak sustengatzeko (4 bilguneetan edo egonaldietan), bai eta eragilea sendotzen laguntzeko ere (bilgune berrien irekitzeko desmartxen jarraipena eta finantzaketa arrunten optimizatzeko lanak besteak beste)

→ **4.000 € bizitza sozialaren arloan**

- **UEU** : 4.000 € Udako Euskal Unibertsitateen antolaketarako

IV.2. Hizkuntza jarduera Proiektu Deialdia (128.500 €)

Hizkuntza jarduera proiektu deialdiari dagokienez, ezarri den diru multzoa 128.500 €koa da. Orotara, 32 eragileek 51 proiektu aurkeztu dituzte (2019an 46 eragilek pausatu 66 proiektu izan ziren).

Diru-laguntzen esleipena honela egituratzen da (prentsa ohar honi lotu **"2020ko Hizkuntza jarduera proiektu deialdiaren Ebazpena"** izeneko dokumentuak proiektu bakoitzari esleitu diru laguntzak zehazten ditu):

IV.2.1 Diru-laguntzak jasoko dituzten eragileak arloz arlo:

- **Lehen haurtzaroko harrera arloan:**
 - Euskarazko harrera egiten duten lehen haurtzaroko eragileei, euskarazko tailerren antolatzeko kanpoko parte hartzaileei dei eginez:
 - Baionako Luma haurtzaindegia: psikomotrizitate eta musikoterapia 2 tailer proiektuentzat
 - Angeluko Xoko Ttipi haurtzain etxea: "Nini irakurleak" irakurketa animazio proiektuarentzat
- **Helduen euskalduntzearen arloan:**
 - Helduentzako euskarazko ikasgaiak eskaintzen dituzten eragileak:
 - Angeluko ikasleak helduen formakuntzan eskaintzen dituen jarduerentzat
 - Jakinola formakuntza eskaintza berri bat ezartzeagatik (Hizkuntzen etxea Baionan)

- **Irakaskuntza artistikoaren arloan:**

- Beren formakuntza jardueretan Euskarazko eskaintza egituratu duten eragileak:
 - Garazi/Baigorriko Iparralai eta Hazparneko Soinubila musika eskolak: musika heziketa, musika klase indibidualak eta taldean praktikatzeko musika klaseak (koru, harmonia, musika talde...)
 - Oreka zirko eskola: euskarazko zirko tailerrak
 - Iparraldeko Dantzarien Biltzarra : tresna pedagogikoen ekoizpena

- **Hedabideen arloan:**

- Beren frantsesezko programazioan euskarazko eskaintza integratu duten hedabideetako eragileak: Iparla Baigura Komunikazioa (Mediabask), TVPI eta Xibero telebista

- **Bizitza sozialaren arloan:**

- Euskararen erabilpenaren garapena sustatzen duen jarduera bat egituratu duten eragileak:
 - Euskal Moneta: bere kideak (enpresa eta merkataria) afixatze elebiduna plantan ezartzen laguntzeko jarduerarentzat
 - Mintzalasai: euskararen erabilpenaren garapena helburu duten proiektuentzat (BAB eremuan euskararen erabilpenaren sozializazioa sustatzen duen Mintzalasai egunen antolaketarentzat, besta giroan euskararen erabilpena sustatzeko helburua daukan "Besta euskaraz" kitaren garapenarentzat, BABko euskarazko jarduerak zerrendatzen dituen webgune interaktiboaren hobetze proiektuentzat)
- Euskarazko jarduerentzat euskarri gisa euskarazko hezkuntza tresnak ekoizten dituzten eragileak:
 - Enargia : elebitasuna elektrizitatearen fakturretan eta bezeroaren espazioan txertatzeko
 - Hemen : crowdfunding plataforma elebiduna sortzeko
 - Kiribil : euskara integratzeko elkartearen gune berria
- Beren seinaleetika eta komunikazio euskarriak elebidundu nahi dituzten eragileak:
 - Gastibeltza filmak : Subandila filmaren inguruan irudi-hezkuntzarako euskarazko baliabide pedagogikoak sortzeko
 - Xofaldia : euskarazko fikzio-serie baten pilotua sortzeko

- **Argitalpen arloan:** ikus proiektu deialdiko argitalpen ataleko araudi berezia, laguntzak 3 lerro ezberdinetan esleitzea aurreikusten duena: liburuaren argitalpena, promozio eta merkaturatze lanak, animazio pedagogikoak):

- 20 argitalpen proiektu (argitaratze proiektuentzat eta hizkuntzaren kalitateari dagokionez, Euskaltzaindiak karia horretara osatu lan-batzordeak eman iritzi onaren baldintzarekin):
 - Euskarazko 15 argitalpen proiektu: diru-laguntzak, hautagarriak diren gastuen % 40ean mugatuz edo 4.000 €-tan (diruztapen maila horrek liburuaren ekonomiaren printzipioak ukatu gabe)
 - 3 argitalpen proiektu elebidun: diru-laguntzak, hautagarriak diren gastuen % 20ean mugatuz edo 4.000 €-tan
- 2 proiektu promozio eta merkaturatze lerroan: 500 €ko laguntza finkoa
- 2 proiektu animazio pedagogiko lerroan: hautagarriak diren gastuen % 70ean mugatua

